

GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIAREN KONTSEILU ERREKTOREAREN 2022ko EKAINAREN 6ko BILKURAREN AKTA.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren egoitzan (Gaztelako Atea 15, Gasteiz) eta 2022ko ekainaren 6ko 12:30ak direnean, Kontseilu Errektorearen bilkura hasi da, honako pertsona hauen parte-hartzearekin:

- **Presidentea:** Beatriz Artolazabal Albeniz andrea, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako (hemendik aurrera, eLankidetz) eta haren Kontseilu Errektoreko presidentea.
- **Bokala:** Asier Aranbarri Urzelai jauna, Gizarte Berrikuntzako zuzendaria, Lehendakariaren ordezkari gisa.
- **Bokala:** Leixuri Arrizabalaga Arruza andrea, legebiltzarkidea eta Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubide, Berdintasun eta Justizia Batzordeko presidentea, Eusko Legebiltzarraren ordezkari gisa.
- **Bokala:** Oihana Etxebarrieta Legrand andrea, legebiltzarkidea eta Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubide, Berdintasun eta Justizia Batzordeko kidea, Eusko Legebiltzarraren ordezkari gisa.
- **Bokala:** Josu Urrutia Beristain jauna, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren ordezkari gisa.
- **Bokala:** Olga García Martínez andrea, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren ordezkari gisa.
- **Bokala:** Alberto Cereijo Fernández andrea, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren ordezkari gisa.
- **Idazkaria:** Paul Ortega Etcheverry jauna, eLankidetzako zuzendaria.

Era berean, gai-zerrendan dauden gaiak aurkezteko laguntza teknikoa eskaintzearen, honako hauek ere bertaratu dira, gonbidatuta: Noemí de la Fuente Pereda andrea, eLankidetzako Koordinazio Estrategikoaren arduraduna; Izaskun Astondoa Sarria andrea, eLankidetzako Administrazioaren eta Zerbitzuen arduraduna; eta Cristina Ocio Urrutia andrea, Ekonomia eta Ogasun Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoko auditorea.

Honako hauek ezin etorria adierazi dute:

- **Bokala:** Hernando Lacalle Edeso, Ekonomia, Finantzak eta Aurrekontuetako sailburuordea, Ekonomia eta Ogasun Sailaren ordezkari gisa.
- **Bokala:** Jone Fernández Landa andrea, Landaren eta Itsasertzaren Garapenerako eta Europar Politiketako zuzendaria, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren ordezkari gisa.
- **Bokala:** Imanol Zuluaga Zamalloa jauna, Osasun-sailburuaren Kabineteko zuzendaria, Osasun Sailaren ordezkari gisa.

Sarrera

eLankidetzako eta haren Kontseilu Errektoreko presidentek hartu du hitza bertaratutakoei ongietorria egiteko, eta bilkurari hasiera eman dio, gai-zerrenda honekin:

1. *2022ko martxoaren 21ean egindako aurreko bilkuraren akta irakurri eta, hala badagokio, onartzea.*
2. *2021eko urteko kontuak onartzea.*
3. *IV. Gida Planaren ebaluazioa eta luzapena onartzea.*
4. *2022ko zuzeneko dirulaguntzen proposamenak onartzea.*
5. *Galde-eskeak*

Presidenteak eman dio hasiera bilkurari, eta adierazi du gaur aztertu beharreko gai-zerrendari buruzko dokumentazio guztia aldeztu aurretik helarazi dela.

1. Aurreko bilkuraren akta irakurri eta onartzea

Bertaratutakoei ohar bat bera ere egin ez dutenez, 2022ko martxoaren 21eko bilkuraren akta onartu da, bertaratu diren guztien aldeko botoekin.

2. 2021eko urteko kontuak onartzea

Onartuak izan daitezten aurkeztu dira eLankidetzaren urteko kontuak. Cristina Ocio auditoreak aurtengo 2021eko mugari adierazgarrienak azaldu ditu.

Kontabilitate Plan Orokorrean aldaketa bat egin da, eLankidetzari eragiten ez dion arren, txostenean jaso behar dena.

“Beste aktibo likido baliokide batzuk” atalean, Eusko Jaurlaritzarekiko kontu korrontea jaso da (CashPooling).

2019an eLankidetzak 710.000 euroko dirulaguntza bat jaso zuen, Gaztelako Ateko egoitza berriaren inbertsioari heltzeko. Egikaritu gabeko kopurua txostenean dago jasota, eta kopuru hori izango da 2022ko kontuak ixtean Eusko Jaurlaritzari itzuli beharreko partida, 2022ko ekitaldian inbertsio gehiagorik egiten ez bada.

Itzulketak, ordainketei uko egiteak (pandemiaren ondorioz amaitu gabe geratutako proiektuengatik) eta kudeaketa-gastuen soberakina 1.810.703,79€ da guztira, eta hori da 2022an eLankidetzak itzuli beharko duen kopurua.

2021eko ekitaldian, ordainketen periodifikazioa 3.531.050,16€ da, 2020ko ekitaldiko 5.464.396,80 € baino txikiagoa beraz. Kopuru horrek ia hutsean geratu behar du ekitaldi bakoitzaren amaieran.

Ekitaldiaren emaitza negatiboa da eraikinaren amortizazioagatik. Eta emaitza negatibo horrek ondare garbia txikiagotuko du, 2019an gizarte-funtsean egindako 1,7 milioiko zabalkuntza konpentsatu arte.

Josu Urrutiak adierazi duenez, lege-aurreproiektuko 18. artikulua araberan, ordainketa aurreratuen aurreikuspena % 100 da, eta, hala onartuz gero, horrek eragin positiboak izango ditu kontuetan. Paul Ortegak erantsi du tresnak berritzeko ekimenak ere eragin positiboak izango dituela ildo horretan.

Jarraian, bozkatzeari ekin zaio, eta akta guztion adostasunarekin onartu da.

3. IV. Gida Planaren ebaluazioa eta luzapena onartzea

Luzapen-proposamena aurkeztu da, onartua izan eta Gobernu Kontseiluari helarazteko.

Josu Urrutiak galdetu du zenbateraino txertatu diren Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluak emandako nahitaezko txostenean egindako ekarpenak, eta, zehazkiago, urte bakoitzerako kontsignatutako aurrekontuen gaiari dagokionez. Paul Ortegak azaldu duenez, gauza batzuk kontuan hartu dira eta beste batzuk ez, eta kasu horretan memorian eman behar dira dagozkion azalpenak. Noemí de la Fuentek azaldu duenez, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren hurrengo osoko bilkuran horren berri emango da, eta zehazkiago, aurrekontuari dagokionez azaldu du izapidetze-prozesuan gomendioa Ekonomia eta Ogasun Sailari helaraziko zaiola.

Proposamena bozkatu eta onartu da, aldeko bost botorekin, kontrako bi botorekin eta abstentzio batekin. Josu Urrutia eta Olga García ados daude luzapena proposatzeko testuarekin, baina kontrako botoa eman dute, luzapenaldirako aurrekontu-aurreikuspena ez datorrelako bat aurkeztu behar den lankidetzaren lege-aurreproiektuarekin, eta gainera, goian aipatutako nahitaezko txostenean horri dagokionez egindako oharra jasotzen ez duelako. Oihana Etxebarrieta abstenitu da, lege berria onartu arte gida-plana luzatzeko behararekin ados badago ere, egindako aurrekontu-aurreikuspena ez duelako begi onez ikusten.

4. 2022ko zuzeneko dirulaguntzen proposamenak onartzea

Presidenteak jakinarazi duenez, gai-zerrendako puntu hori etenda geratu da bileraren egunean proposamenik ez dagoelako.

5. Galde-eskeak

Ez denez beste gairik proposatu, saioa amaitutzat eman da 13:30ean. Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 18.2 artikulua lehenean paragrafoan aurreikusitakoa betez, akta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Kontseilu Errektorearen hurrengo bilkuran onartuko dela jakinarazten da.

OE Beatriz Artolazabal Albeniz andrea,
Agentziako eta haren Kontseilu
Errektoreko presidentea.

Paul Ortega Etcheverry
Kontseilu Errektoreko idazkaria
GLEAko zuzendaria